



AGIFESEN KAZETARITZA ETA BURU OSASUNA SARIAK (2019)

Lehiaketa honen xedea buru-osasunaren inguruan kazetaritza lanak sustatzea eta saritzea da. Buruko osasun arazoak dituzten pertsonen kolektiboari buruz ikuspegi arduratsu batekin informatzen duten profesionalen lana azpimarratu nahi dugu, gizarte-sentsibilizazioan fokua jartzeagatik eta estigmaren aurka borrokatzeagatik.

Sari hauek hedabideei eskerrak emateko sortu dira, buruko osasun arazoaren ikuspegi soziala normalizatzen laguntzeko eta buruko osasun arazoak dituztenen gizarteratzea sustatzeko indar handia baitute.

Partekatu gurekin zure lana!



PARTE-HARTZEA

- Gipuzkoan hedapena duten komunikabideetan (telebistak, irratiak, egunkariak, aldizkariak eta informazio webguneak) buru osasunarekin loturiko kazetaritza-lanak argitaratu dituzten egileek parte hartu ahal izango dute.
- Egileek aurkeztu beharko dituzte lanak, eta komunikabideek beraiek ere egin ahal izango dute kazetarien baimenarekin.
- Lanak euskeraz edo/eta gaztelaniaz aurkez daitezke.
- Partaide bakoitzak nahi adina lan aurkeztu ahal izango ditu, oinarri hauetan adierazitako edozein hizkuntza eta kategoriatan.

KATEGORIAK

- Lehiaketa hiru kategoriatan banatzen da:
 - **Prensa eta hedabide digitalak**
 - **Telebista**
 - **Irratia**

BALORAZIO IRIZPIDEAK

- **Gizarte-sentsibilizazioa** helburu duten lanak bereziki baloratuko ditugu, buru osasun arazoaren inguruan dagoen estigma gainditzeko laguntzen dutenak; buru gaixotasuna duten pertsonen gizarteratzea sustatzen dutenak; patologia horien inguruko aurreiritziak baztertzen dituztenak; eta pertsona horien gaitasunak eta errehabilitazioerako aukerak azpimarratzen dituztenak.
- **Terminologia egokia eta errespetuzkoa** erabiltzea baloratuko dugu (Fedafesek landutako [Komunikabideentzako estilo gidaliburua](#) eskuragarri duzue).
- Lanek **argazkiak edo ikus-entzunezko baliabideak** baldin badituzte, horien edukia eta transmititzen duten ikuspegia ere kontuan hartuko ditugu.

SARI-EMATEA

- **Hiru sari banatuko ditugu:** kategorია bakoitzeko lan onenak **400 euro** jasoko ditu.
- **Hizkuntza aldetik ez dugu bereizketarik egingo.** Euskaraz nahiz gaztelaniaz aurkeztutako lanek sari berberak izango dituzte aukeran.

LANEN AURKEZPENEA

- Aurkeztutako lanak **2019an argitaratuak edo igorriak** izan beharko dute.
- Lanak **2019ko azaroaren 29era arte** aurkeztu ahal izango dira.
- Honela aurkeztu beharko dira:
 - **Prensa eta hedabide digitalak:** egunkariko edo aldizkariko orrialde osoaren PDFa. Argitaratze data eta egilea ikusi beharko dira PDFan. Argitalpen digitala izanez gero, URLa bidali beharko dute hautagaiek, online irakurri ahal izateko.
 - **Irratia:** ohiko audio programen bidez entzun ahal izateko formatuan.
 - **Bideoak:** Youtuben erreproduzitu daitekeen formaturen batean.
- Materiala **info@agifes.org** helbidera bidali behar da, egilearen/egileen datu pertsonalekin batera (atxikitako dokumentu batean jasota):
 - Izen-abizenak
 - NAN
 - Emaila
 - Telefonoa
 - Twitterreko profila (aukeran)
 - Lana argitaratu edo igorri duen komunikabidearen izena
 - Argitaratze edo igorpen data

SARITUTAKO LANEN HAUTAKETA

- Agifesen **sentsibilizazio batzordeak** aukeratuko ditu lan irabazleak, azaldutako irizpideak kontuan izanik.
- Batzordearen **erabakia apelaezina** izango da.
- **Edozein sari hutsik gera daiteke**, epaimahaiak erabakitzen badu lan bakar batek ere ez dituela ezarritako irizpideak betetzen.
- Saritutako lanak www.agifes.org webgunean argitaratuko dira. Gainera, irabazleekin harremanetan jarriko gara emailaz edo telefonoz.

AURKEZTUTAKO LANEN ARGITALPENA

- Lan irabazleak, eta baita artikulu eta ikus-entzunezko erreportaje aipagarrienak ere, Agifesen webgunean argitaratuko ditugu (www.agifes.org) eta elkarte-ko sare sozialen eta bestelako hedabideen (Newslettera eta aldizkaria) bidez zabalduko ditugu.
- Edozein kasutan, komunikabidea eta egi-lea/egileak aipatuko ditugu.

ADOSTASUNA

- Parte hartzearekin batera, aurrez adierazitako baldintzak onartzen ditu partaideak.

DATU PERTSONALEN BABESA

ASOCIACION GUIPUZCOANA DE FAMILIARES ENFERMOS PSIQUICOS elkarteak, lehiaketan parte hartzeko emandako datuen tratamenduaren arduradun gisa, jakinarazten du honako helburuekin jaso direla datuak: elkarteak antolatutako zozketa edo lehiaketetan parte hartzen duten pertsonen datuak kudeatzea. Tratamendurako oinarri juridikoa parte-hartzailearen oniritzia da. Zure datuak ezingo dira hirugarrenekin partekatu zure onarpenik gabe. Edonork du eskubidea bere datuak kontsultatzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta euren erabilera mugatzeko gure bulego nagusira idatziz edo emaila bidaliz agifes@agifes.org helbidera. Informazio gehigarria duzu www.agifes.org webgunean.